



Euskararen berri OLAtu gainean

2015eko abenduko ALBISTEAK

“Hiru hilabeteen ikasi nuen euskara, arin-arin”

Euskararen Egunaren harira, bideo bat argitaratu du Ondarroako Udaleko Euskara Batzordeak. Bertan, hainbat immigrante bildu dituzte, lehenik jatorrizko hizkuntzan hitz egiten, eta gero, euskaraz noiz, nola, zergatik ikasi zuten azaltzen.

Berria: http://www.berria.eus/albisteak/117278/hiru_hilabeteen_ikasi_nuen_euskara_arin_arin.htm

Tolosaldeko lan mundua euskalduntzeko dinamika

Abenduaren 17an, Tolosaldeko lan mundua euskalduntzeko dinamika aurkeztu zuten. Eskualdeko lanbide heziketa institutuak, sindikatuak, garapen agentzia, udaletako euskara zerbitzuak eta euskalgintzako eragileak denbora luzez aritu dira elkarlanean eskualdeko datuak eta aurrera begirakoak aztertzen.

Tolosaldeko ataria: http://ataria.info/komunitatea/tls_eh/1450779123054

Ikastolen Elkarteak jolas eta joko ugari sortu ditu

Jolas egin eta ikasi. Ikasteko modurik polit eta dibertigarriena delako jolas egitea. Ikastolen Elkarteak jolas gehiago ekoitzi ditu negu honetarako, bakarka, taldean, adin berekoekin, familia guztiarekin jolasteko. Eta joko digital gehiago ere ekoitzi ditu.

Erabili: http://www.erabili.eus/zer_berri/berriak/1450421424

Euskara eta harremanek topa egiten dutenean... “Saltsa badago!”

Kaixomaitiatik, inoiz baino berrikuntza gehiagorekin, euskaldunon harremanen aro berri bat dastatzera gonbidatzen zaitugu.

Sustatu: http://sustatu.eus/kaixomaitia/1450437888?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Euskaltzaleen aktibazioa aztergai urtarrilean egingo den Topaldia jardunaldian

“Euskaltzaleen aktibazioa 21. mendean; autoeraketa, ahalduntzea eta performatibitate” izenburua izango du jardunaldiak. Topaldia urtarrilaren 21ean osteguna, egingo da, Durangon, goiz eta arratsalde. Urtarrilaren 18a bitartean izena emateko aukera zabalik dago.

Topagunea: <http://topagunea.eus/2015/12/euskaltzaleen-aktibazioa-aztergai-urtarrilean-egingo-den-topaldia-jardunaldian/>

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak herrian izango duen eragin linguistikoa ari da neurtzen Orioko Udala

Orioko Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ari da lantzen eta, lanketa horren barruan, lehenbiziko aldiz, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egingo du.

Uema: <http://www.uema.eus/2015/12/15/hiri-antolamenduko-plan-orokorrak-herrian-izango-duen-eragin-linguistikoa-ari-da-neurtzen-udala/>

“Administrazioak herritarrek hautatzen duten hizkuntza bermatu behar du”

Abenduan bete dira 29 urte Nafarroan Vasceucearen Legea onartu zutenetik. Hizkuntza Eskubideen Behatokiko Garbiñe Petriatiren iritziz, “Nafarroa zonaka banatu eta herritarren artean aldeak eraiki zituen”.

Info 7: http://info7.naiz.eus/eu/info_i7/20151215/administrazioak-herritarrek-hautatzen-duten-hizkuntza-bermatu-behar-du

“Irten hizkuntzaren armairutik” liburua salgai

Durangoko azokan “Irten hizkuntzaren armairutik” liburua aurkeztu eta gero, dagoeneko salgai dago liburua. 2010ean Ferran Suay eta Gemma Sanginés psikologoek katalanez argitaratu zuten “Sortir de l’armari lingüístic” liburuaren egokitzapena da. Emun 2007tik ari da TELP tailerrak ematen, hizkuntza portaeretan eragiteko asmoarekin. Liburuan irakurleak euskal hitzunen egunerokoan bizi dituzten egoerak eta zailtasunak aurkituko ditu, baita, estres linguistiko edota zailtasun horiek gainditzeko aholkuak ere.

Emun: <http://www.emun.eus/albisteak/irten-hizkuntzaren-armairutik-liburua-salgai/>

Enpresarean.eus webgunea berrituta

Euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi da Enpresarean proiektuaren bidez. Egitasmoaren ardatz dira bi urtean behin antolatzen den Enpresarean azoka, Enpresarean Foroa hitzaldi-gosariak eta Enpresarean.eus webgune berritua.

Baieuskarari: <http://www.baieuskarari.eus/eu/bloga/2015/12/15/enpresarean-eus-webgunea-berritu-dugu>

Euskararen erronkak aztertzeko mintegia egingo du Euskaltzaindiak, otsailean

2016ko otsailean, euskararen egoera aztertu eta aurrera begirako erronkak eta zereginak zehazteko, mintegia egingo du Euskaltzaindiak. Era horretan, Patxi Saez Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendariak egindako eskaria bideratu nahi du Akademiak.

Erabili: http://www.erabili.eus/zer_berri/berriak/1450028252